Gazteizko itsasargiak

Ayer los Montes de Vitoria fueron mi reto. Con 62 kilómetros y casi 2900 metros de desnivel positivo por delante, he querido llamar a esta experiencia “Gazteizko itsasargiak”: 13 montes, 13 faros que han sido guía a lo largo de una carrera dura y preciosa. De ellos, además, 11 son cumbres emblemáticas del Catálogo de Montes Vascos.

El recorrido es un constante sube y baja, sin apenas dar tregua. Las subidas se encadenan una tras otra, y las piernas empiezan a calentarse poco a poco… pero en mi caso, desde el kilómetro 1 ya noté el peso. Piernas pesadas, cuerpo duro, y una sensación que en ningún momento llegó a ser del todo cómoda. Los kilómetros no pasaban. Al contrario, se alargaban, y en muchos momentos la meta parecía lejana.

Aun así, el recorrido tiene algo especial. Al menos para mí, pasé por zonas que no conocía y que una y otra vez me dejaban con la boca abierta. Bosques espectaculares, silencio, y la fuerza de la naturaleza muy presente, dando un respiro en medio del sufrimiento.

He terminado dos veces la Hiru Haundiak, con más kilómetros, casi una maratón más y el doble de desnivel. Aun así, esta prueba de Gasteiz me ha parecido al menos igual de dura. El constante sube y baja castiga muchísimo, hasta destrozar las piernas.

Es una carrera dura, muy dura. Al terminar, las piernas se quedan ardiendo, señal clara del esfuerzo realizado. Pero, sobre todo, lo que queda es la felicidad: no solo por haber terminado la prueba, sino por haber sido capaz de alcanzar la cima de los 13 faros que iluminan esta carrera.

Xabier Akarregi Aldasoro

7 06 2026



Gazteizko itsasargiak

Atzo Gazteizko mendiak izan ziren nire erronka. 62 kilometro eta ia 2900 metroko desnibel positiboa aurrean, “Gazteizko itsasargiak” deitu nahi izan diot bizitakoari: 13 mendi, 13 faro, ibilbidean gidari izan direnak. Horietatik 11, gainera, Euskal Mendien Katalogoko tontor enblematikoak dira.

Ibilbidea etengabeko gora eta behera bat da, atsedenik ia ematen ez duena. Aldapak bata bestearen atzetik datoz, eta hankak pixkanaka berotzen hasten dira… baina nire kasuan, lehen kilometrotik bertatik nabaritu nuen pisua. Hankak astun, gorputza gogor, eta sentsazioa ez zen inoiz erabat erosoa izan. Kilometroak ez ziren pasatzen. Kontrakoa, luzatu egiten ziren, amaierara iristea urrun ikusten zen une askotan.
Hala ere, ibilbideak badu zerbait berezia. Nik behintzat ezagutzen ez nituen parajeetatik igaro nintzen, eta behin eta berriz ahoa zabalik utzi ninduten. Baso eremu zoragarriak, isiltasuna, eta naturaren indarra gertu-gertu sentitzen ziren, sufrimenduaren erdian arnasa emanez.

Bi aldiz amaitu dut Hiru Haundiak, kilometro gehiagorekin, ia maratoi bat gehiago eta desnibel bikoitzarekin. Hala ere, Gazteizko proba honek gutxienez bezain gogorra iruditu zait. Etengabeko gora-beherek izugarri zigortzen dute, hankak apurtzeraino.

Lasterketa gogorra da, benetan gogorra. Amaieran, hankak sutan bezala geratzen dira, egindako lanaren seinale argi. Baina, batez ere, zoriontasuna da geratzen dena: ez bakarrik proba amaitzeagatik, baizik eta lasterketa hau argitzen duten 13 faroen tontorrak ukitzeko gai izan naizelako.

Xabier Akarregi Aldasoro

7 06 2026

